



4 KALITATEZKO HEZKUNTZA

KALITATEZKO HEZKUNTZA



HELBURUA:

Guztiantzako kalitatezko hezkuntza inklusiboa bermatzea eta etengabeko ikaskuntzarako aukerak bultzatzea.

4 GJH honetan pertsona guztiei doakoa, bidezkoa eta kalitatezkoa den hezkuntza aukerak bermatzea da helburu nagusia,

Horretarako ondorengo arloak lantzen dira...

- Udalerrian dagoen hezkuntza eskaintza orokorra eta mailaren araberako eskaintza
- Herritarren hezkuntza-maila
- Hezkuntza sustatzeko udal baliabide eta zerbitzuak

Garapen Jasangarrirako **4. Helburuak** lantzen dituen arloak kontuan hartuz, jarraian zehazten diren GJH izango ditu lankidetzatza eremu gehien:



ZEIN PUNTUTAN DAGO ZARAUTZ?

Hezkuntza eskaintza

Hezkuntza pertsonak formatu eta gainontzeko garapen jasangarrirako helburuetan zehazten diren helburu espezifikoak lortzeko gakoa da.

Zarautzek hezkuntza eskaintza zabala du, ondorengo ekipamentu edo ikastetxe aurkitzen direlarik bertan:

Hezkuntza eskaintza	
Haur hezkuntza (0-5 urte)	5
Lehen hezkuntza	4
Derrigorrezko Hezkuntza	4
Batxilergoa	2
Erdi Mailako Heziketa Zikloa	2
Goi Mailako Heziketa Zikloa	2

Eskaintza mailaren arabera:

Haur hezkuntza bi etapa desberdintzen dira: 0-1 gelak eta 2-5 urte bitarteko gelak. Hemen aipatzekoa da 0-1 urteko gelak 2 zentrotan eskaintzen direla Haurreskola, zeina publikoa den eta Antoniano ikastetxean. Arlo honetan, jaiotze kopurua behera doazela kontutan hartuz, horrek isla dauka baita ere Haurrekoslan matrikulatuko ume kopuruan ere, izan ere azken 4 ikasturtean 26 ume gutxiago matrikulatu direlarik, hau da, % 25ko jaitsiera eman da. Jaitsiera hau datozen urtetan gainontzeko maileta eta etapetan eragina izango duela aurreikusi daiteke.

HH (2-5 urte) eta derrigorrezko hezkuntza (lehen hezkuntza eta derrigorrezko bigarren hezkuntza) eskaintzen duten 5 zentro daude:

- Titulartasun publikoa duten bi zentro:
 - o Orokieta eskola publikoa (LH)
 - o Lizardi Institutu Publikoa (DBH eta Batxilergoa)
- Titulartasun pribatua duten 3 zentro:
 - o Antoniano Ikastetxea (HH, LH eta DBH)
 - o La Salle (HH, LH eta DBH)
 - o Oteiza Lizeo Politeknikoa (Batxilergoa)
 - o Salvatore Mitxelena Ikastola (HH, LH eta DBH)

Derrigorrezko lehen eta bigarren hezkuntza bukatzean, ikasten eta formatzen jarraitzeko eskaintza zabala dago Zarautzen. Udalerrian heziketa zikloak eta enplegurako formakuntza ematen duten beste hainbat zentro daude baita ere, ikasketa hauek herrian bertan egiteko aukera egonik:


- o Oteiza Lizeo Politeknikoa
- o Monte Albertia: ile apainketa eta estetikako goi eta erdi mailako ikasketen zentro publikoa.
- o Aiala sukaldaritza eskola, erdi mailako formakuntza zikloa eskaintzen duena, bestelako ikastaroez gain
- o Aipatzekoa da Zumaiako kokatua badago ere, soldadura oinarriko zikloa egiteko aukera eskaintzen dela Zumaiako Soldadura zentroan, zeinak Zarauzko Ikastetxeen kontseiluan parte hartzen duen.

KALITATEZKO HEZKUNTZA

Azken urtetan Zarauzko ikastetxeetan matrikulatutako haur eta gazteen kopuruak % 8 jaitsi da.

Azken ikasturteko datuak aztertuz, 2021 urtean 3.436 haur/gazte zeuden eskolara joateko adinean, hau da 0-16 urte bitartean (Eustat) eta udalerrian dauden zentroek 3.402 plaza bete dituzte 2021-2022 ikasturtean, horietatik 1.320 (%39) plaza titulartasun publikoa duten Haurreskola, Orokieta Eskola Publikoa eta Lizardi ikastetxeei dagozkiolarik.

Ikus daitekeenez, haur eta gazteen % 60 inguru publikoak ez diren ikastetxeetan burutzen dituzte ikasketak, proportzio hori egonkor mantentzen delarik azken ikasturteetan.



Iturria: Zarauzko Udala


Jarraian matrikulatutako ikasteen bilakaera jasotzen da:

	2018-2019	2019-2020	2020-2021	2021-2022	Diferentzia (%)
Haur hezkuntza (2-5 urteko gelak)	841	797	780	752	-11%
LH	1.484	1.433	1.438	1.368	-8%
DBH	1.266	1.100	1.187	1.205	-5%
Besteak (Batxillergoa, Lanbide heziketa)	770	807	779	763	-1%

Iturria: Zarauzko Udala

Ikastetxe publikoek egokitutako instalazioak dituzte, pertsona guztientzako. Udalak Haurreskola, eta Orokieta Eskola publikoko eraikinen mantenu lanak egiten dituelarik baldintza egokiak bermatu eta behar berrietara egokituz.

Hezkuntza maila



Biztanleriaren hezkuntza mailari dagokionez, aipatzeko da Zarautzen Unibertsitateko ikasketak dituzten pertsonen proportzioa EAEko batez bestekoa baino handiagoa dela, emakumeek, orokorrean gizonek baino hezkuntza-maila altuagoa dutelarik.

Iturria: Hezkuntza Saila eta Euskal Udalerriek GJH egiten dieten ekarpena II Txostena, Ihobe

Honetaz gain, formatzeko zailtasunak izan ditzaketen zenbait kolektibori zuzendutako eskaintza zabala da udalerrian:

- Dibertsitate funtzionala duten ume eta gazteei zuzendutako hezkuntza eskaintza dago Zarautzen baita ere:
 - o Bailarako Zeregin Ikaskuntzako Gelak (ZIG), hau da, behar bereziak dituzten adimen urritasuna duten ikasleei zuzendutako gela espezifikoak, Zarautzen kokatzen dira baita ere. 16-21 urte bitarteko ikasleei zuzendutako gelak dira, lan mundurako prestakuntza delarik helburu nagusia, ikasleen garapen pertsonala eta emozionala landuz. Honela, lan munduan txertatzeko beharrezko baliabide eta kualifikazio teknikoaz gain, ikasleen autonomia, autoestima, ... ere lantzen dira. Ikasketak egiten dituzten bitartean Gureak enpresan praktikak egin eta lan mundura sartzeko aukera eskaintzen delarik.
 - o Gautenako Gela Iraunkorra dago La Salle ikastetxean, autismoa eta bestelako ezintasun intelektualak dituzten ume eta gazteei zuzendua. Gautenak hitzarmena dauka Zarautzen La Salle ikastetxearekin, bailarako erreferentziazko zentroa delarik.
- Zarautzen Helduentzako Eskola Publikoa dago baita ere, zeinetan hezkuntza arautua eta ez arautua eskaintzen den, baita formakuntza programak eta euskara eta gaztelania ikastaroak ere, lan munduan eta gizartean oinarritzko komunikazioa konpetentziak lortzea helburu dutenak.

Hezkuntza sustatzeko udal baliabide eta zerbitzuak

Ikasleen ongizatea sustatu eta ikasten jarraitu nahi duenari laguntzeko helburuarekin, Udalak zenbait programa eta ekimen burutzen ditu:

- **Hezkuntza programa:** udaleko sail desberdinen arteko programazio bateratua.
- **Ikaslagunak** programa. Ikasleen artean berdintasun baloreak sendotu eta inklusio eta integrazioa sustatzeko helburuarekin, hezkuntza eta gizarte zerbitzuetako kultur aniztasuneko teknikarien artean burutzen dena.
- **Psikomotrizitate zerbitzua:** Mugimenduaren bitartez haurren gabeziak detektatu (fisiko, zein psikikoak) eta hauei aurre egiteko laguntza zerbitzua, 3-6 urtetako haurrei zuzendua.

KALITATEZKO HEZKUNTZA

Bestalde, garapen jasagarria eta bertan jasotzen diren helburuak lortzen lagundu dezaten, arlo desberdinetan lan egiten da:

- Eskolako Agenda 21a, gaur egun **Eskolako 2030 Agenda** izatera pasatu dena garapen jasagarriaren baloreak sustatzeko baliabide egokia izan dira. Zarautzen dauden 8 zentroek parte hartzen dute Eskolako 2030 Agenda programan (Antoniano Ikastetxea, La Salle, Lizardi Institutua, Monte Albertia, Salbatore Mitxelena Ikastola, Orokieta herri eskola eta Oteiza Lizeo politeknikoa), berau HH, LH, DBH; Batxilergoa eta Lanbide Heziketan ezarria dagoelarik. Honek ikasleen %100 2030 Agenda ezarria duen zentroetan matrikulatua gotea suposatzen duelarik.
- **Zarautz Herri Hezitzailea (ZHH)** programa haur, nerabe eta gazteengan eta beraien familietan eragitea helburu duen ekintza komunitarioa bultzatzeko esparrua da. Berau udaleko sail desberdinen eta Eusko Jaurlaritzako Berritzegunearen (laguntza zerbitzu gisa eratuak, hezkuntzaren berrikuntza eta hobekuntzarako tresnaren) arteko lankidetzan burutzen da.

EKIMEN ESANGURATSUAK

- **Hezkuntza programa;** udaleko sail desberdinen artean (hezkuntza, parekidetasuna, euskara, gazteria, immigrazioa, kultura, prebentzioa, ingurumena, udaltzaingoa eta kirola) hezkuntza-programen eskaintza osatzen den eta ikastetxeei programazio bateratu bat eskaintzen zaie. Bertan, mota eta gai desberdinak jorrazteko ekimen
- **Zarautz Herri Hezitzailea programa,** zeinetan umeak erdigunean hartuta, udaleko hainbat sailen artean ekimen espezifikoak lantzen diren.
- **Eskolako Agenda 21a,** gaur egun Eskolako 2030 Agenda izatera pasatu dena. Ikastetxeekin gai konkretu bat lantzen da urtero, ikasleek honek inguruko lanketa egiten dutelarik. Azken urtetan gai ugari landu dira: energia, larreak,...



ERAGILEEN PERTZEPZIOA

- Zarautzen hezkuntza aukera zabala dago eta herritarren ikasketa maila altua da baita ere. Hala ere, goi mailako ikasketen aukera bertan izatea (unibertsitate ikasketak) interesgarria litzatekeela komentatu da.
- Detekzio goiztiarra martxan jarri izana positibotzat baloratzen da.
- Etorkinak eta etorkinen seme-alabak eskola batetan matrikulatzen dira nagusiki eta hau aldatu eta herriko ikastetxe guztietan dibertsitatea sustatzeko neurriak ezartzearen beharra jaso da.
- Eskola publikoa sustatu beharra dagoela esan da.
- Hezkuntza kanpotik datozen pertsonak bertako ohiturak ezagutu eta euskalduntzea eta integrazioa sustatzeko aukera izan daitekeela aipatu da.

ETORKIZUNERA BEGIRAKO JOERAK

Etorkizunari begira, ondorengo lan-ildo edo tendentzia nagusiak identifikatzen dira:

- Ikastetxeen beraien artean eta udalaren arteko harremana sendotu eta elkarlana sustatu.
- Zarauzko hezkuntza edo formazio eskaintza zabaltzea, adibidez, Hizkuntza Eskola Ofiziala ekarriz.
- Zarautz Herri Hezitzailea ekimenaren bitartez nagusiki ondorengo GJH ikuspegi komunitariotik eragitea aurreikusten da: 3 GJH Osasuna eta Ongizatea, 4 GJH. Kalitatezko hezkuntza, 10. GJH Desberdinkeriak murriztea eta 11 GJH. Hiri eta komunitate jasangarriak.
- Herria bera izatea hezitzailea.
- Zarautz Herri Hezitzailean lantzen den ikuspegia udal politiketan txertatzea